

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 403/2015 Foru Agindua, ekainaren 23koa, aldatzen duena Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren uztailaren 18ko 499/2014 Foru Agindua, 583 eredua ("Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga. Autoliquidazioa eta ordainketa zatikatuak") onartzen duena

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren uztailaren 18ko 449/2014 Foru Aginduaren bidez, 583 eredua ("Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga. Autoliquidazioa eta ordainketa zatikatuak") onartu zen.

Foru agindu honen bidez, 583 ereduaren autoliquidazioa aurkezteko epea aldatzen da.

Azterturik Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

Xedatzen Dut

Artikulu bakarra. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren uztailaren 18ko 449/2014 Foru Aginduaren, 583 eredua ("Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga. Autoliquidazioa eta ordainketa zatikatuak") onartzen duenaren, 2. artikuluko b) letra aldatu da eta honela geratu da:

" b) Autoliquidazioa. Dagokion ekitaldiaren ondorengo urte naturaleko azaroaren 1etik 25era egingo da, salbu eta jarduera urte naturaleko urriaren 31 baino lehen eteten bada; horrelakoe-tan, etetea gertatu den urte naturaleko azaroaren 1etik 25era aurkeztuko da eredua eta, hala badagokio, baita kuota ordaindu ere.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko ekainaren 23a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatu jardunekoa, Diputatu Nagusiaren uztailaren 19ko 163/2011 Foru Dekretuan eta ekainaren 18ko 114/2015 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera

ALICIA RUIZ DE INFANTE AGUIRRE

Ogasuneko Zuzendaria

JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO